

## JUUL 2023 SARI BANAKETA EKITALDIA ETXARRI ARANAZKO KULTUR ETXEAN

Ikastoletan 25 urte euskaraz irakurtzeko zaletasuna sustatzen JUUL egitasmoaren bidez



Nafarroako Ikastolen Elkarteak haur eta gazteentzako urtero antolatzen dituen hauteskunde literarioen idazle eta ilustratzaile bozkatuenei sariak banatzeko ekitaldia ospatu zen atzo. **JUUL sari banaketa** ekitaldia Nafarroa Oinez antolatzen ari den ikastolarekin elkarlanean egiten da. Hartara, aurten, Etxarri Aranazko Kultur Etxean izan da **Andra Mari Ikastolako ikasleen partaidetza aktiboarekin**.

Sarituak izan diren idazleen eta ilustratzaileen erantzuna bikaina izan da, oso eskertuta gaude beraien etorrerarekin. Honako hauek dira bertaratu zirenak (argazkian ezkerretik eskuinera): **Eider Eibar, Joseba Larratxe "Josevisky", Ainara Azpiazu "Axi", Ivan Landa, Asier Iturralde "Gaston", Iñigo Astiz, Jon Arretxe, Jasone Osoro, Garazi Kamio eta Nerea Loiola**.

Sari-banaketa ekitaldia NIEko pedagogia arduraduna den Irene López-Goñik aurkeztu eta honako hauek hitza hartu zuten: Izaskun Errazkin Beltza (Nafarroa Oinez 2023, Andra Mari Ikastolako lehendakariordea), Elena Zabaleta Andresena (NIEko lehendakaria), Josu Reparaz Leiza (NIEko zuzendaria).

Irene López-Goñik azaldu zuenez, **ikastolen elkarteak 25 urte daramatza euskarazko haur eta gazte literatura sustatzen**. Urtez urteko egitasmo honen zenbakiek aho bete hortz uzten gaituzte.

2023ko martxoaren 30ean, Euskal Herriko ikastoletako 14.444 ikaslek gustukoan duten liburua aukeratzeko botoa eman zuten eta 6.822 ikaslek ilustratzailea aukeratzeko. Benetan ikaragarriak diren zenbakiak.

Andra Mari Ikastolako lehendakariordea den Izaskun Errazkin Beltzak aipatu zuenez: “Irakurketa funtsezko oinarria da gure ikasleen hezkuntzan, eta irakurketaz gozatzeak aukera ematen du ideien, posiblearen eta ezinezkoaren, errealaren eta fikziozkoaren mundura leihoa zabaltzeko. Ilustrazioen bidez, irudimena elikatzen duen mezuaren zehaztapen plastikoa iristen zaigu. Gainera, irakurzaletasuna garrantzitsua da euskara eta euskal kulturaren transmisioan. Euskaraz irakurriz gozaten ari den umea gaitasun linguistikoa ere lantzen ari da, baita euskararekiko lotura afektiboa indartzen ere.

NIEko lehendakaria den Elena Zabaletaren hitzetan: “JUUL kanpainak 25 urte bete dituela nabarmendu nahi dut. Egitasmoaren helburu nagusia euskaraz irakurtzeko zaletasuna sustatzea da eta horretan 25 urte daramatzagu ikastoletan pozik. Haurren liburuak ez dira soilik dibertitzeko, heziketa, inspirazio eta balio garrantzitsuak irakasteko ere baliagarriak dira. Eta, gazteen literaturari dagokionez, euren identitatearen eta pertsonalitatearen garapenean eragina izan dezake, baita haien inguruko mundua hobeto ulertzeko garaian ere. Hartara, sari hauek, gure ikastoletako ikasleen literatura eremuan aztarna esanguratsua utzi duten eta euren bizitza aberasten lagundu duten egile eta ilustratzaileak omentzeko sortuak dira”.

Bestalde, NIEko zuzendaria den Josu Reparazek sariaren inguruko informazioa eman zuen. Ohikoa den bezala, ikastoletako ikasleen aldetik bozkatuen izan diren idazleei zein ilustratzaileei Nafarroako Ikastolen Elkartek aitorten berezia egiten die. Horretarako, **FAUSTINO AIZKORBE** artista nafarrari **JUUL SARIA** egin zezan eskatu zitzaion eta hori da NIEk saridunei banatu diena.

